

BALORE-TITULUEN ZUZENBIDEA

1. IKASGAIA BALORE-TITULUAK

Laburpena

1. SARRERA
2. BALORE-TITULU ZUZENAK
 - 2.1. Dokumentua eduki beharra eskubidea baliatzeko
 - 2.2. Eskubidearen transmisioa eta dokumentuaren transmisioa
 - 2.3. Dokumentua legitimaziorako tresna, baina ez nahikoa
3. BALORE-TITULU ZIRKULANTEAK
 - 3.1. Dokumentua legitimaziorako tresna nahikoa
 - 3.2. Dokumentua eskuratzen duenaren autonomia
 - 3.3. Fede onez eskuratzea
4. BALORE-TITULUEN SAILKAPENA DESBERDINAK
5. BALORE-TITULUEN GAINBEHERA

1. SARRERA

Espainiar ordenamendu juridikoan ez dago balore-tituluaren definiziorik, bai ordea beste herrialde batzutan (ad. Alemanian). Ondorioz, doktrina saiatu izan da dokumentu edo titulu guzti hauen ezaugarriak bildu eta printzipio orokor batzuk ezartzen, batez ere arautugabeko edo partzialki araututako balore-tituluaren inguruko hutsuneak osatu ahal izateko. Gazteleraz *valores*, *efectos*, *documentos de crédito*, *títulos de crédito* deiturikoak dira balore-tituluak. Dokumentu hauek balorea duen eskubide bat adierazten dute. Beren balioa eskubidean dago eta ez eskubidea adierazten duen paperean edo dokumentuan. Hala ere, eskubidea eta dokumentuaren artean menpekotasunezko harreman berezi bat dago. Dokumentuak bere edukitzaile legitimoa den pertsonaren alde eskubide bat agertzen du, bere alde

prestazioren bat egiteko obligazioa, eta pertsona honek obligatua denari prestazioa egitea exigitu ahal izango dio dokumentuaren edukitza legitimoan oinarrituaz. Gainera, batzutan hau izaten da konplimendua exigitzeko bide bakarra. Hori dela eta, balore-tituluei kredituzko tituluak (*títulos de crédito*) ere esaten zaie. Bestalde, dokumentu hauen bidez adierazitako ondasun eta eskubideak eskuz esku transmititzea errazago egiten denez, merkataritzarako oso tresna erabilgarriak dira.

Eremu juridikoan, dokumentu-mota ugari dago funtzio askotarikoak. Batzutan dokumentuek frogarako besterik ez dute balio izaten, eskubide bat existitzen dela demostratzeko edota bere froga errazteko, baina eskubidea beste bide batzuk erabiliaz ere frogatu ahal izango da (ad. akurapen-kontratuaren kasuan errentariak bere eskubidea agertzeko ez du etengabe kontratua erakusten ibili behar). Beste batzutan, ordea, eskubidea dokumentu bat egitearen ondorioz jaiotzen da (ad. testamentuaren kasuan, dokumentua egitearen ondorioz sortzen da eskubidea, testamenturik gabe ez dago eskubiderik, baina testamentuzko oinorde egoera adierazi eta gero ez da etengabe testamendua erakutsi behar). Balore-tituluen kasuan egoera desberdina da. Eskubidea jai daiteke dokumentua egitearekin batera (ad. ganbio-letra) ala ez (ad. S.A. bateko akzioa), baina hauen ezaugarria da tituluak eskubide bat adierazten duela eta eskubidea baliatu ahal izateko titulua eduki behar dela. Eskubidea eta tituluaren artean lotura berezi bat dago: *'titulurik gabe ez dago eskubiderik'* eta *'titulua daukanak du eskubidea'* (ikusiko dugu ere zer gertatzen den titulua galduz gero).

Balore-tituluetan bi elementu elkartzen dira, eskubidea (gauza gorpuzgabea) eta titulua (gauza gorpuztuna). Bien arteko lotura menpekotasunezkoa da eta egoera berezi honen arauketa ere berezia da. Eskubideaz ezin da baliatu titulurik gabe eta tituluak eskubiderik gabe ez du berezko baliorik. Titulua eta eskubidea bi gauza diferente izan arren, trafikoan gauza bakar bat bezala agertzen dira. Ondorioz, tituluak adierazten duen eskubidea titulua edukitzearen menpe dago. Beste modu batean esanda, titulua ez daukana ez dago eskubidea baliatzeko legitimatua, nahiz eta bera izan eskubidearen benetako titularra. Honek zenbait abantaila ditu. Honela lortzen da ikustezina den zerbait (eskubidea) tituluan gorpuztea eta gauza bihurtzea. Eskubidea ikusgarri egiten da eta honek bere transmisioa errazten du. Baina desabantailak ere baditu, eskubidea baliatzea tituluak jasan ditzaken arriskuen

menpe geratzen delako. Hala ere, titulua galdu, lapurtu edo suntsitzearen kasutako konponbide bezala tituluaren amortizazio-prozedura aurrakusten da.

Beraz, esan bezala, balore-titulua eskubide bat adierazten duen titulua da eta eskubidea baliatzeko titulua eduki egin behar da. Gutxienezko bi ezaugarri hauekin definitu daiteke balore-titulua. Baina balore-tituluen mundua oso zabala da, era askotako tituluak daude eta batzutan ez da erraza izaten bere mugak ezartzea, dokumentu bat balore-titulua den ala ez erabakitzea. Definizio honen barnean sartuko dira, adibidez, loteriako biletea, trenbideko txartelak, hegazkineko boarding pass, kontzertu, jaialdi eta ikustaldietarako sarrerak, kreditu-txartelak, e.a. Aipatu duguna balore tituluaren kontzeptu zabala da. Bere barnean biltzen ditu era askotako balore-tituluak, tipikoenetik hasi eta froga-balio hutsa izateagatik balore-titulu ez diren horien artean dauden guztiak. Azken hauei *'balore-titulu inpropioak'*, *'legitimaziorako tituluak'* edo *'kontraseñak'* ere esaten zaie eta eskubideren bat frogatu besterik ez dute egiten, horregatik ez dira balore-tituluak. Hauek eskubidea baliatzerakoan zordunak hartzekodun legitimoa identifikatzea erraztu besterik ez dute egiten. Zorduna bere obligaziotik aske geratuko da konplimendua dokumentua daukanaren alde eginez. Hauen artean aurkitzen dira, esate baterako, arropazaindegiko fitxak, ekipai-kontsignako fitxak, konpontzeko utzitako gauzen agiriak, e.a. Hauek ez dira benetako balore-tituluak, ez dira trafikoan ibiltzeko sortuak izan. Zordunak prestazioa ematea errazten dute, baina horretarako ere ez dira ezinbestekoak. Hartzekodunak hauetariko titulu, agiri edo fitxaren bat galduko balu, posible izango luke beste bide batzuk erabiliaz prestazioa lortzea, amortizaziozko prozeduraren beharrik gabe (KZ 1527 art.).

Funtzio ekonomikoaren ikuspegitik, balore-tituluen artean bi talde nagusi bereiztu izan dira: titulu zuzenak eta titulu zirkulanteak. **Titulu zuzenak** dira pertsona zehatz baten (tituludunaren) eskubidea adierazten dutenak eta, printzipioz, haren eskutan geratzeko sortu izan direnak. Horregatik, hauen transmisioa posible izan arren, konplexuagoa izaten da, batzutan gainera legez edo kontratu bidez ezarritako baldintzekin (ad. S.A.ko akzio nominatiboen transmisioa sozietatearen estatutuen baldintzapean dago). **Titulu zirkulanteak**, aldiz, transmititzeko, trafiko ekonomikoan zirkulatzeko helburuarekin sortutakoak dira eta horretarako gauza higitarren tratamendua ematen zaie, itxura juridikoaren printzipioak oinarri hartuaz.

Tituluaren eta kredituaren zirkulazioari dagokionez, gogoratu behar dugu zuzenbide zibilean badela kredituak transmititzeko modu bat, kredituen lagapena (KZ 1526 art. e.o.), alegia. Baina ez da merkataritzako trafikoaren beharretara ongi egokitzen, trafiko ekonomikoan sistematikoki erabiltzeko zailtasunak sortzen ditu. Batetik, zordunari kredituaren lagapena egin dela jakinarazi behar zaio. Bestela, honek lagapena egin denik ez badaki, beretzat itxuraz lehenengoa izango da hartzekoduna eta hari ordainduta bere obligaziotik aske geratuko da (KZ 1527 art.). Hau arriskutsua da hartzekodun berriarentzat, zordunak lagapena ezagutu duen ala ez zihurtasunez zehaztea zaila izan daitekelako eta, ondorioz, hartzekodun berriak bere kreditua gal dezakelako. Gainera, lagapena behar bezala eginda ere, bada beste oztopo bat, kreditu-eskubidea jasotzen duenak lagatzailearen egoera berbera eskuratzen duelako. Ondorioz, zordunak haren kontra izan ditzaken salbuespenak jasan beharko ditu eta gerta daiteke kreditua osoki kobratu ezin izatea.

Balore-titulu zirkulanteetan aldiz, zorduna eta ager daitezken fede oneko hartzekodun berriak ere babestuta gera daitezken, kredituaren transmisioa beste irizpide batzurekin egiten da, KZ 1164 artikulua eta itxura juridikoa aintzat hartuta. Kasu hauetan dokumentua edukitzeak efektu bereziak ditu hartzekodunarentzat. Honek ez du frogatu behar eskubidearen existentzia, eskubidearen jabetza, eta kasu batzutan ezta bere nortasunik ere (ad. *'eramileari'*, *'al portador'*, diren tituluetan). Sistema honek ondorio bereziak ditu baita zordunarentzat ere, ez duelako datu horiek zihurtatu beharrik. Dokumentua aurkezten dionari ordainduz gero, bere ordainketa baliozkoa izango da, liberatorioa. Alderantziz ere, zordunak ez dauka titulua erakusten ez dionari ordaintzeko obligaziorik. Zorduna bi aldiz ordaintzera obligatua izan ez dadin, behin ordaindu ondoren titulua erreklamatu eta eskuratu (erreskatatu) dezake. Guzti honek titulu hauen transmisioa erraztu egiten du. Baina, berezitasun hauek direla eta, balore-titulu zirkulanteek arauketa berezia dute eta *numerus clausus* dira. Legez ezarritakoak dira eta partikularrek ezin dute halako titulu-mota berririk sortu. Araudi hori hertsiki interpretatu eta aplikatzen da.

Azkenik aipatu behar dugu balore-titulutan adierazitako eskubidea sarritan kreditu-eskubidea izaten dela, bere helburua diruzko prestazioa izanik. Hori dela eta, balore-tituluei 'kredituzko tituluak' (*títulos de crédito*) ere esaten zaie. Baina tituluak beste izaera bateko eskubideak ere jaso ditzake. Ikus adibidez:

S.A.ko akzioak, untzirapen agiria, ‘*balio du*’ agiria (‘*vale*’), zor-agiria (‘*pagaré*’), gordailu-agiria, arropazaindegiko fitxa, ekipai-kontsignako fitxa. Batzutan gauzak adierazten dituzte (ad. salgaiak), baina oso ohikoa da bere edukia kreditu-eskubidea izatea.

2. BALORE-TITULU ZUZENAK

Hauek dira balore-titulu sinpleenak edo oinarrizkoenak, balore-tituluen gutxienezko ezaugarriak besterik ez dituztenak. Pertsona zehatz baten (tituludunaren) eskubidea adierazten dutenez, printzipioz haren eskutan geratzeko sortu izan dira eta ez transmitituak izateko. Horregatik hauen transmisioa posible da, apur bat konplexua izan arren. Azter ditzagun beren ezaugarri juridikoak.

2.1. Dokumentua eduki beharra eskubidea baliatzeko

Lehenengoz esan behar da dokumentua edukitzea beharrezkoa dela bertan jasotako eskubidea baliatu ahal izateko. Hau balore-titulu ororen ezaugarria da. Hartzekodunak, eskubidearen titularrak, eskubidea baliatzeko titulua eduki behar du eta zordunari aurkeztu. Zordunak titulua aurkeztu eta entregatzen dionari prestazioa emateko obligazioa du soilik. Ez du beste inori ordaintzeko obligaziorik. Honela zordunari behin baino gehiagotan ordainketa eskatzea galera izaten da. Balore-titulu zuzenen kasuan, dokumentua eduki behar hau eskubidea baliatzeko gutxienezko baldintza da (*conditio sine qua non*) baina beti ez da nahikoa izaten.

Balore-tituluen eremuan bada dogma bat: balore-tituluko eskubidea tituluaren menpe dagoela, alegia. Horregatik, titulua eskuratzean, bertan jasotako eskubidea ere eskuratu egiten dela suposatzen da. Baina bi elementu hauek bereizi beharra dago: titulua (gauza gorpuztuna) eta eskubidea (gauza gorpuzgabea). Balio ekonomikoa eskubidearena da eta ez dokumentuarena. Dokumentua galdu edo suntsituz gero, beti ez da eskubidea hiltzen. Beraz, printzipio hori erlatibizatu beharra dago, titulua eskubidea baliatzeko legitimazio-bide edo tresna bat delako.

Beste modu batean esanda, tituluaren eta eskubidearen arteko lotura ez da erabatekoa. Dokumentua galdu, apurtu edo suntsitu egiten bada edota idatzitakoa ezabatu, horrek ez du nahitaez eskubidearen iraungipenik ekartzen.

Eskubidea ez bada titulua sortzearekin batera jaiotzen (ad. S.A.ko akzioa) normala da titulua deuseztatze hutsarekin eskubidea ez galtzea. Baina eskubidea dokumentu berarekin batera jaiotzen den kasuan (ad. kreditu ganbiarioa) problema hau konpontzeko, ordenamendu juridikoak eskubidea birsortzeko edo berrezartzeko bidea arautu du, *amortizazio-prozedura*, alegia (LCCh 84 art. e.o.). Prozedura judizial honekin galdutako edo suntsitutako titulua amortizatu (baliogabetu) egiten da eta beste berri batekin ordezkatu. Beste kontu bat da balore-tituluak efikazia galtzea kreditua erreklamatzeko denbora iragan izanagatik, preskripzioagatik (LCCh 88 art.). Orduan, ez dago eskubidea berrezartzeko prozedura judizialik, baliogabetasuna dokumentuak berak erakusten du, itxura juridikoak.

2.2. Eskubidearen transmisioa eta dokumentuaren transmisioa

Esan bezala, balore-titulu zuzenak ez dira transmisiorako sortuak izan. Hala ere bertan adierazitako eskubidea transmititzea posible da. KZ 1112 artikuluan ezarrita dago eskubideak transmititu daitezkenaren printzipio orokorra. Gertatzen dena da, balore-titulu zuzenen kasuan, eskubidearen transmisioa ez datorrela bat dokumentuaren transmisioarekin. Eskubidea kreditu-lagapen sistema arruntaren arabera transmititzen da (KZ 1526 art.e.o.). kasu honetan titulua transmititzeak ez du eskubidearen transmisioa ekartzen. Bata eta bestea independenteak dira. Titulua, beraz, ez da eskubidea transmititzeko tresna, bai ordea eskubidea baliatzeko.

2.3. Dokumentua legitimaziorako tresna, baina ez nahikoa

Titulu-zuzenen kasuan eskubidea baliatzeko dokumentua eduki behar da, derrigorrezkoa da. Baina legitimazioa izateko, hau gutxienezko baldintza bat da, ez da nahikoa. Horretaz gain zordunak hartzekoduna identifikatu egin behar du eta ikusi hura dela dokumentuan izendatutakoa. Hauek titulu nominatiboak dira. Orduan, dokumentuan adierazitakoa ez den beste batek eskubidea baliatu nahi badu, dagokion froga osagarria erakutsi beharko du bere legitimaziorako (adibidez, kredituaren lagapena egin zaiola erakusten duen dokumentua).

Titulua beharrezkoa da eskubidea baliatzeko (KZ 1162 art.), zordunak ez daukalako prestazioa emateko obligaziorik dokumentua ez daukanari, nahiz eta honek galdu egin duela esan edo beste arrazoi batzuk eman. Baina zordunak, gainera, legitimoa den hartzekodunari ordaindu behar dio. Titulua aurkezten

duena hartzekodun benetan legitimatua dagoela ikuskatu behar du. Horregatik beharrezko ikusten dituen frogak eskatu ahal izango dizkio hartzekodun bezala agertzen denari eta bitarte horretan zordunari ezingo zaio berandutzarik leporatu, dagokion arretaz jokatzeko ari bait da. Beraz, titulu zuzena aurkeztea beharrezkoa da eskubidea baliatzeko baina aurkezpenak ez du automatikoki legitimaziorik ematen.

3. ZIRKULAZIORAKO BALORE-TITULUAK

Titulu zuzenetan pertsona zehatz baten eskubidea adierazten da, gehienetan behintzat, transmitituko ez dena. Balore-titulu zirkulanteetan, berriz, egoera alderantzizkoa da. Hauek bertan jasotako eskubideak erraz transmititzea dute helburutzat. Horregatik dokumentua da eskubidea baliatzeko eta transmititzeko tresna. Titulu zirkulanteen kategoria honetan sartzen dira *‘eramaileari’* (*‘al portador’*) eta *‘aginduz’* (*‘a la orden’*) diren tituluak. Lehenengoak dokumentua entregatze hutsarekin transmititzen dira eta bigarrenak dokumentua entregatu eta endosua eginaz. Hona hemen beren ezaugarri juridikoak.

3.1. Dokumentua legitimaziorako tresna nahikoa

Titulu zirkulanteen ezaugarri bereizlea da titulua aurkeztea nahikoa dela eskubidea baliatzeko eta hartzekodun legitimoa zehazteko. Dokumentuak agertzen duen titulartasun-itxura benetakoa dela presumitzen da, aurkako frogarik ez bada behintzat (LCCh 19.I art.). titulartasun-itxura horrek balio du, dokumentua eskubidearen legitimazioa adierazteko tresna nahikoa bit da (LCCh 21 eta 22 art.). Dokumentuak duen efektu hau zordunarentzako abantaila da ordinketa liberatorioa egin ahal izateko, hartzekodun legitimoa nor den jakitea erraztu egiten diolako (KZ 1162 art.).

Dena den, titulua legitimaziorako tresna denaren erregela orokor hau zehaztu egin behar da, zordunak irregulartasunen bat gertatu dela ezagutzen duenean. Legitimazioa ikuskatzerakoan ezin du dolo edota erru astunez jardun. Horregatik irregulartasuna frogatu badezake, prestazioa egitea ukatu beharko du. Baina irregulartasunaren berri izate hutsak, ezin badu frogatu, ez du zorduna konplimendua ukatzera obligatzen.

Azkenik, aipatu behar da tituluaren efektu legitimatzaileak dokumentua fede onez eskuratzen duen hirugarren pertsonarengan ere eragina duela, *a non domino* eskuratzea posible egiten duelako (MK 545 art., LCCh 19 art.).

3.2. Dokumentua eskuratzen duenaren autonomia

Balore-titulu hauek zirkulazioan ibiltzeko helburua dutenez, beren beste ezaugarritariko bat titulua fede onez eskuratzen duenaren bebesa da. Honek eskubidea baliatzerakoan berak ezagutzen ez zituen gorabeherak ez ditu jasan behar izango. Titulu hauek ez dira besterik gabe igortzen, azpian dagoen kausazko beste negozio baten ondorioz egiten dira. Baina titulua sortu edo transmititzeko egon den kausazko negozioaren inguruko paktu, tratu, egoera eta bestelako gorabeherak eta transmisioaren inguruko gertakizunek ezin dute dokumentuan jasota dagoen eskubidearengan eragin. Fede oneko hirugarrenak dokumentuaren itxuran jazrri duen konfidantza babestu egiten da.

Titulu hauek duten zaugarri honi kausazko negozioarekiko *autonomia* edo *abstrakzioa* esaten zaio. Garrantzi handia du zordunak titulua fede onez eskuratzen duen hirugarrenari jar diezaioken salbuespenak edota honek jasan beharrekoak erabakitzeko. Kredituen lagapenaren kasuan, kreditua eskuratzen duenari (lagapenduari) lagatzailearen eskubide berbera transmititzen zaio eta, ondorioz, harek jasango lituzken salbuespenak jasan beharko ditu hartzekodun berriak. Baina balore-titulu zirkulantea transmititzerakoan eskuratzen duen bakoitzak eskubidearekiko posizio berri bat hartzen du, autonomia.

3.3. Dokumentua fede onez eskuratzea

Zer gertatzen da galdutako edo lapurtutako titulu bat fede oneko hirugarren batek eskuratu ezker? Nor babestu? Fede onez titulua eskuratu duena? Dokumentua galdu duena edo lapurtu diotena? Bi partikularren arteko interes-gatazka honetan fede onez eskuratu duenaren alde egiten du ordenamendu juridikoak, Kode Zibilean ezartzen den erreibindikatzeko ahalmen mugagabearen aurka (KZ 464.I art. 2.lerr.). Horrela eskubidea *a non domino* eskubidea eskuratzea zilegi bihurtzen da, trafikoa, dokumentuaren itxuran, konfidantza jarri duen hirugarrena babestuz. Fede oneko hirugarren hau da dokumentuaren benetako titulartasuna ezagutzen ez zuena edota gutxienezko arreta jarriaz benetako titulartasuna ezagutzeko modurik ez zuena, hau da,

azken finean, itxura juridiko horren azpian benetan gertatutakoa ezagutzen ez zuena (MK 545 art.).

Titulu zirkulanteetan jasotako eskubidearen kasuan, zuzenbideak ez du bere borondatearen aurka titulua galdu duen pertsona babesten aipaturiko interes-gatazka horretan. Pertsona hauentzako beste konponbide bat dauka, amortizazio-prozedura, alegia, galdutako titulua baliogabetzeko. Baina, hala ere, titulua amortizatu aurretik eskubidea fede onez eskuratu duenarena babestu egiten da. Beste kontu bat da eskubidea galdu duenak transmisioa egin duenarri kalteordaina erreklamatu ahal izatea (KZ 1101 eta 1902 art.).

Guzti hau kontuan izanik, titulu zirkulanteren bat sinatzen duenak, jakin behar du zer egiten duen, zuzenbidean bereziki babestuta dagoen itxura juridiko batetan parte hartzen duenaren konzientzia izan behar du. Orduan izango zaio obligazioa egozgarri. Ez zaio egozgarri izango borondateko akatsen bat egon izan bada, ezgaitasuna, sinadura faltsua, ahalorde falta, e.a. Bere intentzioa edo borondatea aspektu horretara mugatzen da, behin titulua sinatutakoan ondorioak legez ezarrita daudelako. Obligazioa hartzen duenaren borondateak ezin du obligazioaren edukia moldatu. Sinatzearekin hartzen du legak ezarritako obligazioa, hari dagokion ondorio eta baldintza guztiekin.

4. BALORE-TUTULUEN SAILKAPEN DESBERDINAK

Balore-tituluen artean era askotako dokumentuak daude eta modu askotan sailkatu daitezke, beren ezaugarri eta bestelako irizpide desberdinen arabera. Aipatuko ditugu batzuek.

- Funtzio ekonomikoaren arabera:

- Titulu zuzenak. Pertsona zehatz baten eskubidea adierazten dute eta haren eskutan geratzeko sortu izan dira. Horregatik hauen transmisioa posible bada ere, konplexuagoa izaten da eta gainera, kasu batzuetan, zenbait baldintza bete behar izaten ditu legez, kontratuz edo estatutu bidez ezarritakoak (ad. S.A.ko akzio nominatiboak).
- Titulu zirkulanteak. Hauek aldiz, transmititzeko, trafikuan zirkulatzeko erraztasun guztiak dituzte. Gauza higitarri baten tratamendua ematen zaie (ad. ganbio-letra, zor-agiria, txeketa).

- Dokumentuan jasotako eskubidearen arabera:

- Kreditu-eskubidea jasotzen dutenak, adibidez: txekea, ganbio-letra, obligazioak, untzirapen-agiria, gordailuen biltegi nagusitako erresguardoa, epe-luzerako ezarpena.
 - Eskubide erreala jasotzen dutenak, adibidez: bonu hipotekarioa, inbertsio higigarrietako fondoetan parte hartzeko zertifikatuak.
 - Bazkide izaera ematen dutenak, adibidez, sozietate anonimoko akzioak.
 - Kontuko partaide izaera ematen dutenak, adibidez, aurrezki kutxek jaulgitako partaidetza-kuotak.
- Edukitzailea zehazteko moduaren arabera:
- Nominatiboak. Dokumentuan jasotako eskubidearen tituluduna izendatzen dute, baina edukitzailearen alde ez dute titular erreala deneko usterik sortzen. Ondorioz, tituludunak eskubidea baliatzeko beharrezkoa da dokumentua zordunari aurkeztea eta honek pertsona identifikatzea. Kasu hauetan eskubidearen transmisioa konplexuagoa da (adibidez, aurrezki-libreta). Batzutan transmisioa zuzenbide zibileko kreditu-lagapen sistema arruntaren bidez egiten da eta hala jakinarazi behar zaio zordunari. Beste batzutan, sozietate anonimotako akzioen kasuan adibidez, masan igorritako tituluak izanik, eta LSC 120 art. ak endosu bidezko transmisioa egitea posible da (LSC 120 art.), baina sozietate hauetan erregistro berezi bat dago horretarako eta bertan inskribatu behar da (akzio nominatiboan, LSA 116 art.).
 - Aginduzkoak (*'a la orden'*). Nork aginduta ordaindu behar den pertsonaren izena agertzen dute (lehen hartzaile edo endosu-hartzaile) azken endosua zuriz dagoenean ezik. Hauetan eskubidearen transmisioa endosu bidez egiten da eta ez kreditu-lagapenaren bidez. Endosu-klausula bidez edukitzaile legitimo bakoitzak bere borondatez (*'aginduz'*, *'a la orden'*) beste pertsona bat ezar dezake eskubidea baliatzeko titular legitimo moduan. Beraz ez zaio zordunari jakinarazi behar. Nahikoa da tituluaren endosu guztien kate erregularra agertzearekin (LCCh 19 art.). Adibidez, ganbio-letra berez da aginduzko titulua, hala ez izateko espresuki adierazi behar da *'agindura ez'* (*'no a la orden'*).
 - Eramailearenak (*'al portador'*). Dokumentu hauetan ez da eskubidearen tituludunik izendatzen, beraz, edukitzailea da besterik gabe eskubidea baliatu edo transmititzeko legitimatua dagoena. Hauek dira errezen transmititzen diren dokumentuak, entrega (*traditio*) hutsarekin (MK 545 art.). Zordunak prestazioa egin beharko du dokumentua aurkezten zaionean, edukitzailea eskubidearen tituluduna den ala ez aztertu beharrik

izan gabe, edukitza irregularra agerikoa den kasutan ezik (adibidez, *'eramaileari'* egindako txekea).

- Dokumentua igortzeko moduaren arabera:
 - Banan bana igorritakoak, bereziki diruzko zorrak ordaintzeko izaten dira, adibidez: ganbio-letra, zor-agiria eta txekea.
 - Masan igorritakoak, kapitalen merkatuko balore-tituluak, kapitaleko inbertsioak egiteko eta erakartzeko balio dute, adibidez: sozietate anonimoko akzioak, obligazioak, zor publikoko tituluak, inbertsio kolektiboko fondotako partizipazioak.

- Dokumentuan jasotako eskubidea eta negozio kausalaren artean dagoen harremanaren arabera:
 - Titulu abstraktuak, hauek ez dira kausa espezifiko edo tipiko bategatik igortzen. Dokumentua igortzearekin kreditu berri bat sortzen da (kartularra) oinarrizko harremanarekiko (kreditu kausalarekiko) autonomia dena (adibidez, ganbio-letra, untzirapen-agiria).
 - Titulu kausalak, hauetan dokumentuak ez du eskubide berririk sortzen, harreman kausaletik eratorritako eskubidea adierazi besterik ez du egiten (sozietate anonimoko akzioak).
 - Traditio bidezkoak direnetan dokumentutik eskubide berri bat eratortzen da, baina kausa tipikoa izaten dute (adibidez, untzirapen agiria, gordailuen biltegi nagusitako erresguardoak).

V. BALORE-TITULUEN GAINBEHERA

Gau egun balore-tituluen egoera azaldu dugunarengandik asko aldatu da. Denok dakigu, adibidez, jada sozietate anonimoez ez dituztela akzioak eta obligazioak paperezko titulutan igortzen, sistema informatiko bidez baizik. Informatikoki erregistratzen dira tituluak, beren edukia, titularra nor den, transmisioa egiten bada, ezar daitezken eskubide errealak, e.a. Beraz, ikasgaiaren hasieran aipatu dugun titulua edukitzearen garrantzia galdu egin da, neurri handi batetan erregistro informatikoez ordezkatu dutelako. Fenomeno hau gertatu da nagusiki masan igorritako balore higikorren eremuan (sozietateetako akzio eta obligaziotan) eta gutxiago dokumentu ganbiarioetan (ganbioi-letra, zor-agiri eta txekean). Azken hauen kasuan, banan bana igortzen direnez, informatizazioa nekezagoa izan bada ere, horixe da joera.